

Euskadiko Jarraipen Batzordea, PEPAC 2023-2027 programaren baitan

Batzordearen 5. bilkura (2024.01.23) – Idatzizko prozedura

AKTA

Jarraipen Batzordearen barne-erregelamenduaren 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta Batzordeko lehendakariaren erabakiz, 2024ko urtarrilaren 23an, Euskal Autonomia Erkidegoko Eskualdeko Jarraipen Batzordearen deialdi bat ireki zen, idatzizko prozeduraren modalitatean, Batzordeko kide guztiei 10:48an bidalitako posta elektronikoaren bidez.


Batzordearen bilkura horren puntu bakarra Euskadiko FEADER esku-hartze fitxetan sartu beharreko aldaketei buruzko irizpena zen, aldaketa horiek Espainiako 2024ko PEPAC aldatzeko prozesu orokorrera eramateko. Aldez aurretik, 2023ko azaroa eta abendua bitartean, kudeaketa-agintaritzak proposamenak jasotzeko prozesu bat ireki zuen batzordeko kide guztien artean eta laguntzak kudeatzen dituzten organoen artean, eta prozesu horretan 77 aldaketa-proposamen jaso ziren.

Postan honako dokumentu hauetara sartzeko estekak eman ziren:

- Aldaketa-proposamen guztiak jasotzen zituen zerrenda, honako alderdi nagusi hauek zehaztuta: esku-hartzea, aldaketa-mota (modifikazioa, jakinarazpena, eskualde-eranskineko zuzenketa), justifikazioa.
- FEADER esku-hartze guztien bertsio berria, 3.0 bertsio-kodearekin, proposatutako aldaketak jasotzen zituena.
- Kudeaketa-agintaritzak kontuan hartu ez zituen proposamen guztiak jasotzen zituen taula, zegokion arrazoiarekin.

Aldaketa-proposamenari buruzko oharra egiteko epeari dagokionez, otsailaren 6ko epea ezarri zen alegazioak aurkezteko. Epe hori igaro eta alegaziorik aurkeztu ez zenez, Idazkaritzak, otsailaren 7an, proposatutako aldaketen aldeko irizpena bidali zien Batzordeko kideei, eta jakinarazi zuen irizpen hori Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministeriora bidaliko zela, 2024ko Espainiako PEPACaren modifikazio orokorraren prozesuan kontuan har zezan.

Euskadiko Jarraipen Batzordeko Idazkaritza, PEPAC 2023-2027 programaren baitan



Sinatuta. Inaxio Alguacil Barrenetxea

Gasteiz, 2024ko otsailak 7